

.....//.....

Bilera mota: Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

Data: 2015-12-23 (asteazkena)

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan..

Lekua: Udaletxeko Batzar Aretoan

Erreferentzia:E-15-11

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko abenduaren 21a
Idazkari-kontuhartzailea

EGUNEKO GAI ZERRENDA

1.- 2016 urterako zerga eta tasen prezioak eguneratzeko espedientea behin-betikoz onartzeko proposamena (zabor bilketa zerbitzua, landabideen erabilera berezia arautzen duen ordenantza).

2.- 2015/03 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea hasieraz onartzeko proposamena

3.- R-15-197-BIS, R-15-198-BIS, ETA R-15-199 Alkatetzaren Ebazpenak berresteko proposamena.

4.- Erregu/galderak.

.....//.....

0-E-15-11: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

.....//.....

2015EKO ABENDUAREN 23KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ezkio-Itsason, bi mila hamabosteko abenduaren 23an

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Ander Unzurrunzaga Idiákez (EIK).
- Gorka Sasieta Barrenetxea (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Maria Luisa Pildain Cenitagoya (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Jose Maria Barrenetxea Aldanondo (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//.....

.....//.....

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

.....//.....

.....//.....

LEHEN PUNTUA:

2016 URTERAKO ZERGA ETA TASEN PREZIOAK EGUNERATZEKO ESPEDIENTEA BEHIN-BETIKOZ ONARTZEKO PROPOSAMENA (ZABOR BILKETA ZERBITZUA, LANDABIDEEN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA).

Sasieta Mankomunitateak oraindik 2016 urterako aurrekontua onartu gabe daukanez, gai hau mahai gainean uztea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA:

2015/03 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA HASIERAZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Idazkari-kontuhartzaileak 2015/3 zenbakidun Kreditu Aldaketa espedientea aurkeztu du eta bere ezaugarriak aipatu ditu.

Gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENA :

2015/3 zenbakidun Kreditu Aldaketa espedientea behin-behineko izaeraz onartzea.

BIGARRENA:

.....//.....

.....//.....

Espedientea Legeak agintzen duenaren arabera jendaurreko erakustaldian jartzea, 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Erakustaldi epean erreklamazio edo alegaziorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe behin betiko izaeraz onartuta geratuko da. Azken hau jendaurreko erakustaldiko iragarkian onartaraziko da.

HIRUGARREN PUNTUA:

R-15-197-BIS, R-15-198-BIS ETA R-15-199 ALKATETZAREN EBAZPENAK BERRESTEKO PROPOSAMENA.

Udal Osoko Bilkurak aho batez honako hau,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

3 Alkatetzaren Dekretu hauek berrestea:

-R-15-197-BIS: EUSKAL TRENBIDE SAREA ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2013KO AZAROAREN 20AN SINATUTAKO HITZARMENAREN LUZAPENA ONARTZEA.

-R-15-198-BIS: "EZKIO-ITSASOKO ALEGI-SANTA LUTZI BAILARAKO PAISAIAREN EKINTZA PLANA PROIEKTUAREN" ERREDAKZIO LANEN ESLEIPENA.

-R-15-199: REDESA ENPRESAREKIN SINATZEKO HONAKO BI HITZARMEN HAUEK ONARTZEA:ITSASOKO SUBESTAZIOAN 220KV "REACTANCIA" DELAKOA INSTALATZEKO ETA LANKIDETZA-HITZARMENA.

LAUGARREN PUNTUA. Erregu eta galderak.

Ez dago erregu edo galderarik.

.....//.....

4-E-15-11:EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

.....//.....

Beterik deialdiaren helburua, 19:30ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko abenduaren 23a

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....